

ALTSASUKO MUSIKA ETA DANTZA PATRONATUA

ALTSASUKO UDAL MUSIKA ETA DANTZA PATRONATUAN IRAKASLE MODUAN LAN EGITEKO LAN-POLTSA OSATZEA. EUSKAL DANTZA ESPEZIALITATEA.

INFORMAZIO ORRIA

EZAUGARRI OROKORRAK:

Behin-behineko kontratazioa, lanaldi partzialean (astearte eta osteguna 17:00etatik 19:00etara)

GUTXIENEKO BETEKIZUNAK:

- Dantza espezialitateko erdi mailako titulazioa (66 plana edo baliokidea), espezialitatea irakasteko habilitazioa edo behar bezala ziurtatutako bestelako meritua.
 - Diplomatura, Unibertsitate Gradua, Ingeniaritza Teknikoa, Arkitektura Teknikoa edo baliokidea izatea, eta:
 - Euskal dantza klaseak emateko habilitazioa
 - Edo kontrataziorako probak gainditzea
 - Aurrekari penalen agiria.
 - Adin nagusikoa izatea.
 - Euskara (C1 mailako titulazioa izatea edo maila proba gainditzea)

CURRICULUMAK BIDALTZEKO:

Tokia: Altsasuko Musika eta Dantza Eskola

- Epea eta modua: musikaeskola@altsasu.net helbidera bidalitako mezu bidez. 2019ko otsailaren 8ko 12:00ak arte.
- Curriculumean adierazitako merezimendu guztiak egiaztatuak izan beharko dira jatorrizko dokumentuarekin edo konpulsatutako kopiekin.

• Informazio osagarria:

musikaeskola@altsasu.net / 948564581

Altsasuko enplegu bulegoa: 948562754

BAREMAZIOA (30 puntos)

- Lan esperientzia (10 puntu).
- Musika eta Dantza Kontserbatoriotan lan egindako urte oso bakoitzeko, euskal dantza irakasle moduan: 2 puntu. Hilabete bakoitzeko 0'2 puntu gehituko dira.
- Udal Musika eta Dantza Eskoletan lan egindako urte oso bakoitzeko, euskal dantza irakasle moduan: puntu 1. Hilabete bakoitzeko 0'1 puntu gehituko dira.
- Aitorpen ofiziala duten Diziplina Artistikotarako Ikastetxe pribatuetan lan egindako urte oso bakoitzeko, euskal dantza irakasle moduan: 0'5 puntu. Hilabete bakoitzeko 0,05 puntu gehituko dira.
- Formazio osagarria eta bestelako meritua (10 puntu).
 - Hautagai den espezialitaterako maila goragoko titulazioa izatea (masterra...): 2,5 puntu.
 - Emanaldi publikoak (errezitaldiak, emanaldiak...): puntu 1 gehienez.
 - Gaiarekin harreman zuzena daukaten argitalpenak: puntu 1 gehienez
 - Estreinatutako dantza-lanak: 0'50 puntu gehienez.
 - Genero berdintasunean egindako formazioa: puntu 1 gehienez.
 - Hautagai den espezialitatearekin harremana daukaten ikastaroetan zuzeneko parte-hartzea, parte-hartze aktiboa dokumentu bidez egiaztatzen bada betiere, hurrengo baremoaren arabera:

- 15 ordu arte: 0'25 puntu.
- 16-30 ordu bitarte: 0'50 puntu.
- 30 ordu baino gehiago: 0'75 puntu.
- Pedagogi Gaitasun Ikastaroa (CAP): puntu 1
- Ikasleentzako ezarrita dauden ordutegi eta taldeak errespetatuz lanpostua bete ahal izatea (5 puntu).
- Elkarrizketa pertsonala. (5 puntu).

ALDI PRAKTIKOA (70 puntu)

Aldi praktikoan ondoko ariketak egingo dira:

A) Klase emateko ariketa.

Ariketa honen gehieneko puntuazioa 45ekoa izango da eta gainditzeko 20 puntu lortu beharko dira gutxienez.

Hasiera edo oinarritzko mailako ikasleei klase bat eman beharko zaie. Klaseak, gehienez, 20 minutu iraungo du.

Klasea bukatu eta gero hautagaiak ondorengoak azalduko ditu epaimahaiaren aurrean: klasearen planteamendua, gertatu izan ahal diren intzidentziak eta balorazio bat, berak prestatutakoaren eta klasean gertatutakoarenaren ingurukoa. Epaimahaikideek hautagaiari nahi beste galdera egin edo azalpen eskatu ahal izango dizkiote; klasearen ingurukoak, alderdi pedagogikoen ingurukoak edo beste edozein motatakoak. Epaimahaiak positiboki baloratuko ditu: hautagaiak ikasleen atentzioa erakartzeko duen gaitasuna, bere komunikazio ahalmena, ikasleei zuzentzeko modua, haiei proposamenak planteatzeko modua, klasea zenbaterako dinamismoarekin egiten duen, etab.

B) Interpretazio ariketa.

Ariketa honen gehieneko puntuazioa 25ekoa izango da eta gainditzeko 10 puntu lortu beharko dira gutxienez.

Norberak aukeratutako pieza bat dantzatuko da, gehienez 10 minutukoa izango da.

Epaimahaiak honako hauek baloratuko ditu: zailtasun teknikoa eta interes artistikoa, estilo barietatea, eta hautagaiaren kalitatea eta heldutasun teknikoa.

Nahi bada, interpretazioa beste musikariren edo musika grabazioren laguntzaz egin ahal izango da.

AZKEN BALORAZIOA

Aldi praktikoan eta baremazioan lortutako puntuen baturan puntuaziorik altuena daukan hautagaia izango da aukeratutakoa. Aldi praktikoaren A eta B ariketak gainditu beharko dira batuketa egin ahal izateko.

KONTRATAZIO ARAUDIA:

Aukeratuko ez diren hautagaiekin lan poltsa bat osatuko da. Poltsa hau behin-behineko kontratuak egiteko erabiliko da, Altsasuko Udal Musika eta Dantza Eskolak dituen beharren arabera. Altsasuko Udal Musika eta Dantza Patronatuak oinarri hauen inguruan sortu daitezkeen zalantzen edo egoeren aurrean kontuak ebatzi eta neurriak hartu ahal izango ditu.